GASOLIOAREN ITZULKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

Oinarriak

Zenbait Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partziala eta Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren karga tasa autonomikoari dagozkion kuoten itzulketa partziala onartuta geratuko dira, hurrenez hurren, Zerga bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua aldatuko duten foru arauek eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzko martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauak direla medio. Azken itzulketa hori ordainduko da zerga eratua duten autonomia erkidegoetan eta gasolioa itzultzeko eskubidea duten Gipuzkoako ibilgailuak gasolioz hornitzen diren erkidegoetan.

Zer itzultzen da?

Hidrokarburoen gaineko Zergan erabilera orokorreko gasolioari aplikaziozkoa zaion karga tasak 2007ko urtarrilaren 1ean izan dezakeen gehikuntza itzuliko da, bai eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergaren karga tasa autonomikoaren zatia ere, azken hori autonomia erkidego bakoitzak finkatzen duen kopuruan.

Zeinek du itzultzeko eskubidea?

Ondorengo atalean aipatuko diren ibilgailuen titularrek, betiere garraio jardueran aritzen badira.

Onura hori gozatu dezaketen ibilgailuak

a. Ibilgailu motordunak eta ibilgailu akoplatuen multzoak, baldin eta bakarrik erabiltzen badira merkantzien errepide bidezko garraioan, besteren kontura edo norbere kontura, eta 7,5 tonako gehieneko pisu baimendua edo hortik gorakoa badute.

b. Bidaiarien garraio erregularrean edo noizbehinkakoan erabiltzen diren ibilgailu motordunak, betiere sartuta badaude Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauan jasotako M2 edo M3 kategorietan.

c. Derrigorrezko baimenak eta taximetroa duten autotaxiak.

Zenbat itzuliko da?

1. Hidrokarburoen gaineko Zergan

Diru kopuru hau itzuliko da: interesatuak erosi duen eta aurreko atalean aipatutako ibilgailuetan erregai gisa erabili duen gasolio puruaren bolumena 2007an indarrean dagoen karga tasaren eta mila litro bakoitzeko 269,86 euroren arteko diferentziarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

Bolumen hori 15 ºC-ko tenperaturan zehazteko, Zerga Bereziei buruzko martxoaren 3ko 20/1998 Foru dekretuak 52.bis artikuluan jasotako koefiziente zuzentzaileak aplikatu behar dira.

2. Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergan
Diru kopuru hau itzuliko da: interesatuak erosi duen eta aurreko atalean aipatutako ibilgailuetan erregai gisa erabili duen gasolio bolumena autonomia erkidego bakoitzak ezar dezakeen itzulketa tasarekin biderkatuz ateratzen den emaitza.

Mugarik ba al du itzulketak?

Itzultzeko zenbatekoa ez da handiagoa izango ibilgailu eta urte bakoitzeko 50.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen itzulketa baino. Nolanahi ere, autotaxiak badira, gehienez itzultzeko kopurua ez da handiagoa izango autotaxi eta urte bakoitzeko 5.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen zenbatekoa baino.

Zer egin behar da itzulketa lortzeko?

Itzulketa lortuko bada, pauso hauek egin behar dira: onuradunen erroldan izena eman, gasolindegi bateko horniduretarako gasolio profesionaleko txartelaz ordaindu eta, norbere kontsumorako instalazioetan egindako hornidurak direnean, haiei alta eman eta horniduren zerrenda aurkeztu.

1. Izena ematea gasolio profesionalaren onuradunen erroldan
Ibilgailuen titularrek izena eman behar dute "gasolio profesionalen onuradunen eta horien titulartasuneko ibilgailuen erroldan". Horretarako,

a. Zerga Administrazioari eskaera aurkeztu behar diote, non ibilgailuen titularra den onuraduna eta haien matrikula identifikatuko dituen. Horren ordez, orri honetako eskaera orria bete behar da, ale bikoiztuan, Zeharkako Zergen Zerbitzuan (Errotaburu pasealekua, 2 | 20018 Donostia).
b. Aitortu behar da, merkantzien errepide bidezko garraioa denean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak (garraio publikoko ibilgailuak) edo Sustapen Ministerioak (garraio pribatuko ibilgailuak) emandako baimen zenbakia, araudiari jarraituz baimen hori derrigorrezkoa duten ibilgailuetarako. Bi kasuotan, merkantzien garraio txartelaz ari gara.
c. Aitortu behar da, bidaiarien garraioa denean, enpresaren baimen zenbakia, araudiari jarraituz baimen hori derrigorrezkoa duten ibilgailuetarako.
d. Aitortu behar da, autotaxien kasuan, garraio txartelik ez duenean, dena delako udal lizentziari eta udalerriari dagokien baimen zenbakia.
e. Jakinarazi behar dira entitate finantzarioaren datuak eta banku kontuaren kodea, hari transferituko baitizkio itzulketak Gipuzkoako Foru Ogasunak.

2. Txikizkako salmentako instalazioetan egindako hornidurak.

1) Gasolio profesionaleko txartelez ordaintzea
Txikizkako salmentako instalazioetan (gasolio zerbitzugunea) egindako hornidurengatik itzultzeko eskubidea sortuko bada, derrigorrez ordaindu behar da gasolio profesionaleko txartelaz. Berariazko ordainbide hori erabiltzeak berarekin zuzenean dakar titularrak aipatu zergak itzultzeko eskatzea.

2) Zer da gasolio profesionaleko txartela?

Zerga Administrazioak baimendutako kreditu, zorduntze edo ordainketa txartelak dira, zeinetan inprimatuta agertzen baita titularraren izena edo sozietate izena nahiz ibilgailu baimenduaren matrikula.

Txartelak ematen dituzten entitateek Zerga Administrazioari aurkeztu behar diote gasolio profesionaleko txartelen erregistroan izena emateko eskaera. Izena emanez baimenduta geratuko dira entitateak emandako merkataritza izendapen bereko txartel guztiak.

3) Zertara behartuta daude txikizkako salmentako establezimenduak?

Gasolio profesionaleko txartela berariazko ordainbide gisa onartzen duten txikizkako salmentako establezimenduak behartuta daude txartela ematen duen entitateari hornidura eragiketa bakoitzaren xehetasuna ematera, hauek zehaztuta: txartelaren titularraren IFZ, ibilgailu matrikula, litro kopurua eta hornitutako erregai mota, bai eta hornidura bere kontura hartzen duen pertsonari dagokion txikizkako saltzailearen identifikazio kodea (TIK) ere.

3. Zertara dago behartuta gasolio profesionaleko txartela ematen dituen entitatea?

Gasolio profesionaleko txartela ematen dituen entitateak behartuta daude **Zerga Administrazioari** txikizkako salmentako instalazioetan egindako gasolio profesionaleko horniduren zerrenda aurkeztera.

4. Itzultzeko eskubiderik sortzen al dute erabiltzailearen beraren instalazioetan egindako hornidurek?

Bai. Horretarako, norbere kontsumorako instalaziotzat hartuko da "erabilera orokorreko gasolioa hartzeko establezimendua", ***zeinaren titularra izena emanda baitago gasolio profesionaleko onuradunen erroldan*** eta zeinetik instalazioaren titularraren ibilgailuak gasolioz hornitzen baitira.

Hornidura horiengatik itzulketa lortzeko, instalazio horien titularrek honela jokatu behar dute:

a. Izena eman behar dute Gipuzkoako zerga berezien erregistroan, jarduera eta establezimendu kodea (JEK) lortze aldera. Horretarako, eskaera aurkeztu behar diote aipatu erregistroan.
b. Kontabilitateko sistema informatikoa eduki behar dute, gasolioa saltzeko aparatuekin integratua eta Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuak onartua.
c. Establezimendu bakoitzeko zerrenda bat aurkeztu behar du, Internetez edo Zeharkako Zergen Zerbitzuak erabakitako euskarrian, haren titulartasuneko ibilgailuei egindako hornidurei buruz, hiruhileko natural bakoitza amaitu ondorengo hogeita bost eguneko epean.
d. Datu hauek jaso behar dira zerrendan, hornidura bakoitzeko: hornidura bakoitzaren identifikazioa, hornitutako litro kopurua, erregai mota, data, ordua eta ibilgailu matrikula.

5. Nola egiten da itzulketa?

Aipatu zerrendetan oinarrituta, Zeharkako Zergak Kudeatzeko zerbitzuak itzulketa erabakiko du, eta banku transferentzia egingo du onuradunak adierazitako kontuan.

Beste zerbaitetara behartuta al daude gasolio profesionaleko onuradunak?

BAI. Itzultzeko eskubidea duten onuradun guztiek urteko aitorpena aurkeztu behar dute, Internetez (Foru Ogasunaren webgunearen bidez) edo hala erabakitzen den euskarrian (Zeharkako Zergen Zerbitzuan), urte naturala amaitu ondorengo lehen hogeita bost egunen barruan. Aipatu aitorpenean jaso behar dute zenbat kilometro ibili diren aitorpenari dagokion urteko urtarrilaren 1era arte eta abenduaren 31ra arte.

Noiz jartzen da indarrean araudi hau?

2007ko urtarrilaren 1ean jartzen da indarrean araudi hau. 2007ko lehen hiruhilekoan jarduera egiten ari diren gasolio profesionaleko onuradunek eskubidea izango dute 2007ko urtarrilaren 1az geroztik egindako gasolio hornidurei dagozkien itzulketak jasotzeko, baldin eta 2007ko martxoaren 31ren aurretik zerga kudeaketako prozeduran exijitutako baldintza eta obligazioak betetzen badituzte. Horretarako, txartel bidez ordainduak izan behar dira txikizkako salmentako instalazioetan egindako gasolio hornidurak. Aipatu txarteletan, ibilgailuaren titularra eta matrikula identifikatu behar dira, eta gasolio profesionaleko txartel gisako baimena 2007ko lehen hiruhilekoaren barruan jaso behar da.

Era berean, itzultzeko eskubidea emango dute 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera norbere kontsumorako instalazioetan egindako hornidurek, betiere instalazio horien titularrek betetzen badituzte, 2007ko lehen hiruhilekoa amaitu aurretik, prozedura hau garatzen duen foru aginduan jasotako baldintzak eta obligazioak.